



2024 KARPEN LAGAPENERAKO OINARRIAK

01.- AURKEZPENA

Kutxa Fundazioak, Gipuzkoako hirugarren sektorea bultzatzeko konpromisoa hartu zuenetik, erakunde solidarioen eskura jarri zuen, 2011n, gipuzkoasolidarioa.info multikanal plataforma. Gipuzkoako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Home-a. Elkartasuna, gizartearen parte-hartzea eta boluntarioen trebakuntza sustatu nahi ditu.

Ilido horretan, besteak beste, 2019an, irisgarritasun unibertsalaren paradigmaren sartzen den ekitaldietarako zerbitzu integrala jarri zen abian. Ekitaldirako-materiala tokian utzi, muntatu eta desmuntatuko litzateke: karpak, mahaiak eta aulkiak.

Hura ezartzeko prozedura deialdi honen bidez garatuko da.

02.- HELBURUA

Deialdi honen bidez, gipuzkoasolidarioa.info sareko entitate guztiek parte hartzeko ekitaldi publikoak antolatzeko aukera berdinak izatea lortu nahi da.

Jarduera hori bat dator Garapen Iraunkorreko Agendaren 4. eta 17. helburuekin. Hau da, esku-hartze horiek etengabeko ikaskuntza informalaren testuinguru ireki batean sartzen dira, eta testuinguru hori aliantza komunitarioen sareetan oinarritzen da. Halaber, Kutxa Fundazioaren ardatz estrategiko batzuekin: kontzientzia kritikoa sustatzea, iraunkortasunaren eta aniztasunaren printzipioetatik abiatuta, gizartea eraldatzeko.

Lau karpak erabilera (bakoitza 3 m x 3 m) dohainik lagatzen da. Bi formatutan*:

- 2 karpa. + 2 bandera bertikal + 2 mahai + 6 aulki
- 4 karpa. + 2 bandera bertikal + 4 mahai + 8 aulki

Inolaz ere ezin izango da proposatu ez den formaturik jarri.

03.- ERAKUNDEEI ESKA DAKIZKIEKEEN BALDINTZAK

- Irabazi asmorik gabeko entitatea izatea.
- Gipuzkoa Kutxa Solidarioa Sareko kide izatea (gipuzkoasolidarioa.info).
- Banku kontu bat izatea Kutxabank S.A.n



04.- ESKAEREI BURUZ

- Karpak erabiliko diren ekitaldia argi eta zehatz deskribatzea.
- Proposatutako ekitaldiak dinamika edo jarduera parte-hartzaileak bultzatu behar ditu.
- Entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du eskatzaile gisa.
- Lagapenak gehienez egun bateko iraupena izango du.
- Karpak lagatzeko epea 2024ko apiriletik urrira bitartekoa izango da, biak barne.

Karpak bide publikoan jartzeko behar diren **baimen eta lizentzia guztiak** tramitatzeko erantzukizuna eskaera egiten duen erakundearena baino ez da.

05.- ESKAERAK AURKEZTEA

Eskabideak oso-osorik beteko dira horretarako prestatutako inprimakian. Gipuzkoasolidaioa.info.webgunean dago eskuragarri. Entitateen zerrenda unean-unean datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen legeriaren mende egonen da.

06.- GAUZATZE-ALDIA

Zerbitzua 2024ko apiriletik urrira bitartean aktibatuko da.

07.- BALORAZIOA

Irizpide hauek lehenetsiko dira:

- Entitateek beren ekintza aniztasun funtzionalaren esparruan garatzea.
- Entitateak boluntarioez osatua izatea.
- Ekitaldiak Gipuzkoako udalerrri txiki eta ertainetan egitea.
- Ekitaldia antolatzean, komunitateko beste entitate eta eragile batzuek parte hartzea.

08.- AURKEZTEKO EPEA

- Eskaerak aurkezteko epea 2024ko martxoaren 1etik 18ra izango da.



09.- EBAZPENA

Ebazpen data: 2024ko martxoaren 20a.

Kutxa Fundazioak erakunde eskatzaile bakoitzari ebazpen honen berri emango dio, eta ebazpena bere web orriaren bidez www.kutxa.eus eta egokitzen dituen baliabide eta sare sozialen bidez ere argitara dezake.

10. – ONARTUTAKO ESKAEREK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Esleipenak ebatzi ondoren, Kutxa Fundazioaren deialdien plataforman erregistratuta dauden entitateek dokumentazioa berrikusi eta, hala badagokio, eguneratu egin beharko dute. Bestela, alta eman beharko dira, eta horretarako agiri hauek beharko dira:

- Erakundearen identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.
- Erakundearen ordezkariaren NANA.
- Estatutuak
- Eraketa-akta / -eskritura
- Notario-ahalordeak/Batzordearen boterea
- Dagokion administrazio-erregistroan inskribatzea

Gainera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Erantzukizun zibileko aseguruia.
- Dagokion udalaren espazio publikoa erabiltzeko baimena.
- Fidantzaren gordailua.

Oinarri hauek aurreikusi gabeko gaiak Kutxa Fundazioaren irizpidearen arabera ebatziko dira, eta haren erabakiak apelaezinak izango dira. Deialdian parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

Erakundeek **10 egun** izango dituzte, ekitaldia egiten denetik kontaktzen hasita, jasotako materiala lagatzeko zerbitzuaren **justifikazioa eta ebaluazioa** betetzeko.